

GALDERAK

1. Zer deritzozu Alavesek UEFAn egiten ari den denboraldiari?
2. Taldea finalerdietan ikusten zenuen denboraldi hasieran?
3. Zer nabarmenduko zenuke Alavesen?

4. Zure ustez, zein izango da biharko partiduaaren emaitza?
5. Zein taldek du finalera igarotzeko aukera gehien?

MOTZEAN

ALAVES

Kaiserslautern eguerdian helduko da Forondara

Andrea Brehmek entrena-tzen duen taldea eguerdiko 11:45ean helduko da Forondako aireportura, eta, bertatik, Argomaizera joango dira hotelean atsedean hartzeko asmoz. Arratsaldean Mendizorrotza ezagutzera joango dira talde alemaniarreko jokalariek, eta 20:00etan entrenamendu saioa egingo dute bihar Alavesen aurka jokatu behar duten partidua prestatzeko.

Rune Pedersen norvegiarra ariko da Mendizorrotzako neurketan epaile lanetan

UEFAk erabaki du jada zein izango den Alaves-Kaiserslautern norgehiagokaren epailea. Rune Pedersen norvegiarra izango da finalerdietako lehen kanporaketan jardungo duena jokoa zaintzen. Rune Doelvik eta Steinar Holvik izango ditu hegaletan laguntza emateko prest. Laugarren epailea Terje Hauge izango da, Norvegiarra azken hori ere.

LESIOAK

Alaves. Tellez, Tomic eta Moreno zalantza dira biharko partidurako. Herrera eta Desio berriz ziurrenik jokatzeke moduan egongo dira.
Osasuna. Ociok, Sabinok eta Mateok osatze bidean jarraitzen dute, baina ezingo dute Racingen aurka jokatu.
Reala. Aranburu, Jauregi, Llorente eta Demetradzek min hartuta jarraitzen dute. Julio Cesar gaur taldekideekin batera entrenatuko da.
Athletic. Urzaizek, Urrutiak eta Alkortak errekoerazioarekin jarraitzen dute. Larrazabal gripeak jota dago aste-buritik.

ENTRENAMENDUAK

Alaves. 11:00etan entrenatuko dute arabarrek Ibaian.
Reala. Talde txuri-urdina gaur itzuliko da lanera, goizeko 10:30etan, Zubietan.
Athletic. Goizeko 10,30etik aurrera entrenatuko dira gaur Lezaman.
Osasuna. Gaur, 10:30etik aurrera entrenatuko dira Taxoaren gorritxoak.

PARTIDUAK

Alaves-Kaiserslautern. UEFAko finalerdietako joaneko partidua, 21:15etan bihar (ETB1).



de arabarraren arrakastaren arrazoiak bi direla azpimarratu dute.

5. Aukerak badaude. Alaveseko jokalariek duten gogoarekin, eta jokoan erakusten duten tre-beziarekin finalaren ametsa ez dugu zertan ezinezkoa ikusi.

PATXI ZUBIZARRETA (Idazlea)

«Ilusio handia sumatzen dut bai taldean bai hirian bertan»

1. Egia esan, ez naiz futbolzalea, baina hirian poztasun handia sumatzen dut Alavesen merituak direla eta; onartu behar da egoera horrek ere asko pozten nauela. Gainera, biziki gozatzen ditugu Alavesen partidua, etxetik oihuak entzuten baititugu Mendizorrotzan gola sartzen dutenean.

2. Nire ustez, jendea harrituta dago. Era berean, horrek taldeko jokalariei konfiantza gehiago ematen die. Gainera, Gasteiz alde batean gelditu da EAEn, baina futbolak zein saskibaloia gasteiztarrei beren buruengan konfiantza izateko bultzada eman diete.

3. Jokalari bakoitzak diruaz gain beste zerbaitek bultzatuko balu bezala korrika egiten du, eta hori ezinbestekoa da. Korrika Alaveseko jokalariek hasi zuen, eta hori jendearen eragina du. Futbolariak dira haurrentzako eredu egun, ez idazleok.

4. Aipatu dudana ilusioa eskuan hartuta eta egoera dagoen bezala, 2-1ekoa ikusten dut biharko markagailuan.

5. Alaves helduko da finalera, zergatik ez? Aukerak, egon badaude, eta baikorrak izan behar

dugu. Horrelako erronkak jarri behar ditugu.

VELIMIR PERASOVIC
(Tauko jokalaria ohia)**«Alemaniako futbolak iragan hamarkadatik hona behera egin du, nabarmen»**

1. Alavesen ezagunik badut oraindik, Vucko adibidez. Spliten ezagutu nuen eta benetan pozik nago egiten ari diren denboraldiarekin. ikusgarria da benetan egiten ari direna.

2. Ez nuen uste. Batez ere aurrean izango zituen taldeak indartsuegiak ikusten nituen. Interren kasuan, adibidez, aurrekontu beldurgarria du, eta ez nuen uste Alaves horren urrun helduko zenik.

3. Futboleko sistemei buruz ez dudala piperrik ere ulertzen onartu behar dut, baina, nire ustez, Manek zeresan handia du Alavesen oraingo egoeran. Atzean oso ondo antolatuta daude. Talde lana izugarria da.

4. Nire ustez, Alaves finalean egongo da. Alemaniako futbolak behera egin du iragan hamarkadatik hona, eta horretaz baliatu behar du Alavesek. Nire ustez, Espainiako Liga oso indartsua da, eta Alaves gailenduko zaio Kaiserslauterni.

5. Alaves finalera hel daiteke, arazo handirik gabe. Dena den, Alavesek ez du inoiz Europa mailako txapelketarik jokatu, eta hori ere nabaritu daiteke.

TOTI MARTINEZ DE LEZEA
(Idazlea)**«Manek zuzendari lanetan egiten ari den lana serioa dela deritzot»**

1. Meritu handikoa iruditzen zait, gehienbat kontuan hartzen badugu aurrekontu txikia dutela.

2. Ez nuen uste lortu behar zutenik, baina asko poztu naiz, Alaves nire aitaren talde kuttuna izan baitzen.

3. Nik futbolaz ezer gutxi ulertzen dut, baina entrenatzailerak egiten duen lana garrantzitsua da, nire ustez. Ni abesbatza batean nago, eta, ahots bikainak egon daitezkeen arren, zuzendariaren lana txarra bada ez da ezer onik lortzen. Nire kasua Alavesen parekoa da, ahots

ikusgarririk ez, baina zuzendariak bere lana ondo egiten badaki.

4. Irabaziko du, dudarik gabe. Ezin dut arrazoitu, baina gol batez irabaziko duela deritzot.

5. Ezin du aukera galdu, eta finalean ikusten dut Alaves.

RAMON RABANERA
(Politikaria)**«Bagenekien ikuskizun polita izango genuela, baina hau gehiegizkoa da»**

1. Ikusgarria. Ohore bat da arabar guztientzako Alavesek bizi duen egoera.

2. Iragan denboraldia ikusita bagenekien ikuskizun polita izango genuela, baina gehiegizkoa da egun duguna.

3. Elkarren artean duten ezagutza, eta, nola ez, Maneren lana ere aipagarria da. Lan polita egiten ari dira gogo handiarekin gainera.

4. Alavesek European urte asko daramatzala ematen du, eta ziurrenik aldeko emaitza lortuko dute.

5. Oso zaila da jakitea, baina finalerdietara heldu bada talde bat indartsua delako da. Alaves hor dago, eta oraindik asko du erakusteko.

IÑAKI LANDA
(Zeledon)**«Bartzelona eta Alaves finalean ikusteak asko poztuko ninduke»**

1. Gauza askorekin gertatzen den bezala, ez dakit benetan duen garrantziaz jendea ohartu den. Ikusgarria da egiten ari den lana.

2. Inor gutxik pentsatu zezakeen denboraldia hasi aurretik gertatu dena gertatu behar zuela, gauza askorengatik.

3. Lan handia egiten dute zelairatzen direnean. Langile etsuak dira, nire ustez, gauzak ondo egiteaz gain zortea izaten ari direnak.

4. 2-0 bukatuko dute biharko neurketa, nire ustez. Gainera, entzun dudaren arabera ez daude sendoei.

5. Oraintxe bertan sinatuko nuke Bartzelona-Alaves final ikusi ahal izateko.